## Ahaldun Nagusiaren Kabinetea

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 204/2008 FORU DEKRETUA, abenduaren 16koa, emakume elkarteei eta irabazteko asmorik gabeko beste elkarteei 2009. ekitaldian diru-laguntzak ematea arautzen duena, elkarteek burutzen dituzten proiektuen bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen dutenean. (Oker zuzenketa.)**

Ahaldun nagusiaren Kabinetaren 204/2008 Foru Dekretuaren eranskinen argitalpenean oker bat gertatu dela ikusirik, jarraian dekretu hori berriro oso-osorik argitaratuko da. Dekretu hori abenduaren 16koa da eta emakume elkarteei eta irabazteko asmorik gabeko beste elkarteei 2009. ekitaldian diru-laguntzak ematea arautzen du, elkarteek burutzen dituzten proiektuen bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen dutenean. Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 3. zk.an argitaratu zen (2009ko urtarrilaren 7koa, asteazkena):

Ahaldun Nagusiaren Kabineteak aurrekontu-egitaraua du, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna eta genero politikak sustatzeko. 2009. urteko helburuen artean, egitarau horrek emakumeak elkartu daitezen bultzatu nahi du eta, horrekin batera, Bizkaiko lurralde historikoan elkarte guztiek genero ikusmira barnera dezaten eragin nahi du, betiere bere jarduketa horien plangintza eta diseinuan zeharkakotasunaren baloreak eta bideak zainduta.

Gizartea bera transformatu ahala, baloreak eta jokabideak eta, azken finean, gizartearen egiturak eta antolaketa ere eraldatu egiten dira. Aldaketa horiek guztiak konplexuak dira oso, eta gizarteko administrazioek, eurek bakarrik, ezin diete halakoei aurre egin. Ildo horretan, lurralde edo udalerri guztietan dauden herritarren parte hartzea ezinbestekoa da.

Elkarteen mugimenduak eta, bereziki, emakumeek bultzatutakoak, gizalagunen beharrizan hurbilenekoak asetzen ditu, sarri askotan erakundeek eta, orokorrean, gizarteak, ez baitiete eskari horiei erantzuten. Hortaz, elkarteek «erreibindikazio» eginkizuna betetzen dute, eta eginkizun horrek berebiziko garrantzia du gizarte aldakor honetan. Arean bere, eginkizun horren bitartez jakin daiteke aldaketek zernolako eragina duten herritar batzuengan eta besteengan, herritarron sexua, adina, famili egoera eta bestelakoak aintzakotzat hartuta.

Politika, ekonomia, gizarte eta kulturaren arloan, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna benetakoa eta egiazkoa izan dadin, behar beharrezkoa da emakumeek elkarteak era ditzaten sustatu eta erraztea. Horretarako, elkarte horiei tresna zehatzak eman behar zaizkie, tresnok erabiliz elkarteen eta euren taldeen indarra handiagoa izan daitekeelako. Bide horretatik, emakumeen elkarteek gizartean eta politikan parte har dezaten lortu beharra dago.

Bestalde, ezinbestekoa da estrategia egokiak berrikusi eta antolatzea, boluntarioen artean eta, oro har, irabazteko asmorik ez duten elkarteen artean. Horrela, oztopo zehatzak ken daitezke, halakoek eragozten baitute berdinak izan daitezen. Gainera, oztopook kenduz gero, emakumeen eta gizonezkoen partaidetza orekatua izan daiteke, boteregunееtan, indar-guneetan eta erabakiak hartu behar direnetan.

Horretarako funtsezkoa da gazteek proiektu honetan partehartze aktiboa izatea eta proiektuaren oinarrizko osagai izatea, aurreikusitako helburuak inoiz lortuko badira.

Halaber, arestian ere aipatu den zeharkako oinarriaren aplikazioak gizartearen esparru guztietan jardun beharra eragiten du, eta jarduketa hori gizarte eragile guztiekin lankidetzan gauzatzea. Horrela, bada, beharrezkoa da betearazpen eta burutzapen mekanismo berriak bilatzea, emakume eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzetan esku hartzen dutenen koordinazioa eta lankidetza areagotuko dutenak.

Era berean, berdintasun politikak abian jartzeak berak bilakaera eragiten du eta beharrezkoa da beharrizanak aztertzea gure ahaleginen hartzaileak izan behar duten eremu eta taldeak antzemateko.

## Gabinete del Diputado General

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 204/2008, de 16 de diciembre, por el que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2009, a Asociaciones de Mujeres y a otras Entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades dirigidas a la promoción de la igualdad de mujeres y hombres. (Corrección de errores.)**

Habiéndose observado un error en la publicación de los anexos del Decreto Foral 204/2008, de 16 de diciembre, del Gabinete del Diputado General, por el que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2009 a Asociacion de Mujeres y a otras Entidades sin ánimo de lucro que aborden proyectos para la realización de actividades dirigidas a la promoción de la igualdad de mujeres y hombres, publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 3 de fecha miércoles, 7 de enero de 2009, dicho Decreto se publica íntegramente:

El Gabinete del Diputado General en su programa presupuestario de promoción de igualdad de oportunidades y políticas de género incluye, dentro de sus objetivos para el año 2009, el fomento del asociacionismo de las mujeres y la incorporación de la perspectiva de género en el tejido asociativo en general del Territorio Histórico de Bizkaia, recogiendo en la planificación y diseño de sus actuaciones los valores y mecanismos de la transversalidad.

Los procesos de transformación social que incluyen cambios en los valores, en los comportamientos y en definitiva, en las estructuras y en la organización social, siempre han sido muy complejos, siendo imposible abordarlos únicamente desde las diferentes administraciones de una sociedad. En este sentido, se hace imprescindible la colaboración de todas las redes y vías de participación ciudadana que existen en cualquier territorio o municipio.

El movimiento asociativo, y en particular el promovido por las mujeres, es un barómetro que recoge las necesidades más cercanas de las personas y también las demandas no satisfechas por las instituciones y la sociedad en general. Así, su papel «reivindicativo» resulta fundamental en el entramado de una sociedad cambiante, ya que sirve de espejo para conocer cómo estos cambios afectan de diferente manera a unas personas y a otras en función del sexo, de la edad, de la situación familiar, etc.

Para conseguir la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, social y cultural, se hace necesario fomentar y favorecer el asociacionismo entre las mujeres, facilitándoles herramientas para el fortalecimiento de la asociación y de sus agrupaciones, incrementando con ello su participación social y política.

Por otro lado, también resulta necesaria la revisión y adecuación de estrategias, dentro del voluntariado y de las asociaciones sin ánimo de lucro en general, que remuevan los obstáculos específicos que impiden la igualdad y que fomenten una participación equilibrada de mujeres y hombres en los centros de poder, influencia y toma de decisiones.

Todo ello sin olvidar la importancia de la participación activa de la juventud en este proyecto como componente fundamental en la consecución futura de los fines previstos.

Asimismo, la aplicación del principio de transversalidad exige actuar en todas las áreas de la sociedad y con todos sus agentes sociales. De esta forma es necesario buscar nuevos mecanismos de ejecución y realización que profundicen en la coordinación y la cooperación entre los y las partícipes de las acciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres.

Del mismo modo, la evolución propia de la puesta en marcha de las políticas de igualdad exige analizar necesidades para detectar aquellas áreas y colectivos de especial interés a las que dirigir nuestros esfuerzos.

Horrela, elkarteen arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako proiektuak sustatzeko, Gobernu Kontseiluak 2000ko maiatzaren 30ean Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Generoko Politiketako Bizkaiko Foru Plana onetsi zuen; Plana 2003ko abenduaren 30ean berretsi zen.

Ildo beretik, Bizkaiko Foru Aldundiak, berari dagozkion eginkizunak betez, diru-laguntzetarako deialdia arautu du, publizitate, elkarlehia eta objektibotasun irizpideei helduta.

Ahaldun Nagusiaren Kabineteko idazkari orokorrak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2008ko abenduaren 16ko bileran gaia aztertu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. TITULUA

**BERDINTASUNA SUSTATZEKO PLANA, IRABAZTEKO ASMORIK EZ DUTEN EMAKUMEEN ELKARTEEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO.**

**1. artikulua.—*Xedea***

Titulu honetan araupetzen dira Bizkaiko Foru Aldundiak 2009. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren irabazteko asmorik gabeko emakume elkarteei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko proiektu eta jardueretarako emango dizkien diru-laguntzak. Eskabideak ondoko artikuluetan azalduko den bezala aurkeztu behar dira, eta diru-laguntzek muga edukiko dute, hain zuzen ere Aukera Berdintasuna eta Genero Politikak Sustatzeko Egitarauaren aurrekontuko IV. kapituluan zainpetutako kredituen zenbatekoa.

**2. artikulua.—*Erakunde onuradunak***

Bizkaiko lurralde historikoan irabazteko asmorik ez duten emakumeen elkarteek titulu honetan jasotako onurak eskura ditzakete, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako IV. Planean eta Aukera Berdintasunari eta Genero Politikei buruzko Foru Planean zehaztutako arloetako batean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuak aurkeztea. Inbertsio-proiektuak ez badira.

2. Elkarteek egunean ordainduta edukitzea euren zerga betebeharrak, Zuzenbide publikoko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin hartutakoak. Inguruabar hori eskabidea egiteko dagoen epearen barruan egiaztatu behar da; eta diru-laguntza eman eta ordaintzeko unean ere, baldintza hori bete beharra dago.

3. Sozietate eta zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

4. Eskaera egiten duen emakume elkartearen estatutuetan azaltzen bada bere jarduera nagusiaren arloa garapenerako lankidetza, kirola edo kultur jardueren (antzerkia, dantza, musika) sustapena eta zabalkuntza dela, beraren eskaera dekretu honetatik kanpo geratuko da, eta gauza bera gertatuko da jarduera nagusiaren xedetzat tratu txarrak eta genero indarkeria izan arren inoiz Gizarte Ekintza Sailaren diru-laguntzaren bat jaso dutenekin ere.

**3. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak***

Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako IV. Planean, Aukeren Berdintasunari eta Genero Politikari buruzko Foru Planean eta Aldundiaren xedeekin bat etorrita, funtsean hurrengo xedeetarako aurkezten diren proiektuak eta jarduerak joko dira diruz lagun daitezkeen proiektutzat:

a) Beste emakumeen elkarte, irabazteko asmorik gabeko erakunde, agente sozioekonomiko eta herri administrazio batzuekin lankidetzan burututako proiektuak.

b) Gizonen artean berdintasunaren printzipioa sustatzeko proiektuak edo jarduerak gauzatzea.

c) Arlo jakin batzuk bultzatzeko izango diren proiektuak edo jarduerak abian jartzea, esaterako: erantzunkidetasuna eta nor-

De este modo, y a fin de favorecer la ejecución de proyectos en materia de igualdad de mujeres y hombres en el tejido asociativo, entre otros, se aprueba por Consejo de Gobierno el 30 de mayo de 2000 el Plan Foral para la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres y políticas de género en Bizkaia, revalidado el 30 de diciembre de 2003.

Así, la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de sus funciones, procede a regular la siguiente convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

A propuesta del secretario general de la Presidencia del Gabinete del Diputado General, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en reunión de 16 diciembre de 2008,

DISPONGO:

TÍTULO I

**PLAN DE PROMOCIÓN PARA LA IGUALDAD EN COLABORACIÓN CON LAS ASOCIACIONES DE MUJERES SIN ÁNIMO DE LUCRO**

**Artículo 1.—*Objeto***

Es objeto del presente Título la regulación de las subvenciones a conceder por la Diputación Foral de Bizkaia durante el año 2009, a Asociaciones de Mujeres sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, que presenten proyectos y actividades relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres en los términos señalados en los artículos siguientes y dentro de los límites que determinan los créditos consignados en el capítulo IV del presupuesto del programa promoción de igualdad de oportunidades y políticas de género.

**Artículo 2.—*Entidades Beneficiarias***

Podrán acceder a los beneficios contenidos en el presente Título las Asociaciones de Mujeres sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que cumplan los requisitos siguientes:

1. Que presenten proyectos para la igualdad de mujeres y hombres en alguna de las áreas definidas en IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Plan Foral para la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres y políticas de género en Bizkaia, y que no se trate de proyectos de inversión.

2. Que se hallen al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de Derecho público y de Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá acreditarse dentro del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse en el momento de la concesión y el pago.

3. Que tengan su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

4. Quedan expresamente excluidas del presente decreto las solicitudes presentadas por Asociaciones de Mujeres que reflejen en sus estatutos que su actividad principal se realiza en el ámbito de la cooperación al desarrollo, en el deportivo, la promoción y difusión de eventos culturales como el teatro, la danza y la música, así como aquellas que teniendo por objeto los malos tratos y violencia de género hayan sido beneficiarias de subvenciones concedidas por el Departamento de Acción Social.

**Artículo 3.—*Actividades subvencionables***

Se considerarán hechos subvencionables los proyectos y actividades que en el marco del IV Plan para la igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco y del Plan Foral para la igualdad de oportunidades y políticas de género de la Diputación Foral de Bizkaia, se dirijan, fundamentalmente a:

a) La realización de proyectos llevados a cabo en cooperación con otras asociaciones de mujeres, entidades sin ánimo de lucro, agentes socioeconómicos y administraciones públicas.

b) Realización de proyectos o actividades dirigidos a fomentar entre los hombres el principio de igualdad.

c) Puesta en marcha de proyectos o actividades que se dirijan a la potenciación de la corresponsabilidad y la conci-

beraren, familiaren eta lanbidearen arduren arteko bateragarritasuna; emakumeen eskubideen arlokoak; osasun eta bizitza-kalitatearen arlokoak; enplegu, trebakuntza eta ingurumenaren arlokoak eta hirigintza eta garraioari buruzkoak.

d) Emakumeen prestakuntza hobetzeko gaietan trebatzea.

e) Emakumeen autonomia, independentzia eta oso-osoko garapena gehitu nahi dituzten jarduerak.

f) Informazio, sentsibilizazio eta zabalkuntzarako jarduerak, hain zuzen ere emakume eta gizonen arteko desberdintasuna jakinarazteko.

g) Emakumeen parte-hartzea sustatu nahi duten jarduerak, batik bat, parte-hartze hori gizarte, politika, ekonomia eta kulturaren inguruko organo erabakitzaileetan gauzatzen denean.

h) Landa eta itsasoaren esparruetako emakumeak isolaturik bizi daitezen eragozten duten jarduerak, bai eta emakume horientzat trebakuntza eta aisialdiko eskaintzak egiten dituztenak ere.

i) Genero rolen arloan, ekintza berritzaileak jasotzen dituzten proiektuak. Horien artean aipa daitezke, besteak beste: buruzagitza politikoaren trebetasunei eta baliabideei buruz trebakuntza ematea, emakumeak gizonezkoen ohiko lanbideetan sar daitezen bultzatzea, «gizonezkoena eta emakumezkoena» zer den zalantzan jartzea, etab.

j) Emakume bazkideentzako trebakuntza_ekintzak, elkartearen antolaketa, partaidetza eta kudeaketa hobetzeko helburuarekin.

k) Emakumeek historian zehar egin dituzten ekarriak berreskuratzeko jarduerak.

l) Aukera berdintasunaren esparruko ikerketa proiektuak diseinatzea eta burutzea.

m) Elkarteak jardunaldi eta topaguneetan parte har dezan bultzatzen duten proiektuak, betiere, elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan bertan nahiz horretatik kanpo burutzen duen jarduerari begira.

n) Bazterkeriaren aurkako egitarauak, emakumeek arazo larriak dituztenean edo zailtasun handiko kezkak dituztenean.

ñ) Aisia sustatzeko eta astialdia aprobetxatzeko jarduerak.

o) Genero ikuspegia kontuan hartzen duten ingurumenari buruzko jarduerak diseinatu, garatu eta burutzea.

p) Garraioaren eta hirigintzaren arloetako erabilerak egokitzea eta arlo horiek hobetzea genero ikuspegia aintzat hartuta (azterlanak, informazio materialak, informazio kanpainak...).

**4. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak eta etekin orokorrak***

1. Kontzeptuak eta zenbatekoak: dekretu honen I. tituluan ezarritako laguntzei dagokienez, 3. artikuluko egitateengatik sortzen diren gastuak diruz lagun daitezke, baldin eta hurrengo kontzeptuen ondorioz sortzen badira eta hurrengo kopuruak badituzte:

1.1. *Bestelako emakumeen elkarte, irabazteko asmorik gabeko elkarte, eragile sozioekonomiko eta herri administrazio batzuekin lankidetzan egingo diren proiektuak egitearen ondoriozko gastuak.*

Ondorengo baldintzak bete behar dira:

a) Eskabidea aurkezten duen elkarteak gutxienez beste emakumeen elkarte, irabazteko asmorik gabeko erakunde, gizarte eragile edo herri administrazio batekin lankidetzan egin beharko du proiektua. Inguruabar hori frogatze aldera, eskabidea aurkeztu duen elkarteko lehendakariak eta lankidetzan ari diren gainerako erakundeetako legezko ordezkariak aitorpen bat sinatu beharko dute. Aitorpen horretan, hain zuzen, hartu den konpromisoa adierazi beharko da, IV. eranskina betez (lankidetza jardueretan hartutako konpromisoa frogatzeko agi-

liación en la vida personal, familiar y profesional, derechos de las mujeres, salud y calidad de vida, empleo y formación y medio ambiente, urbanismo y transporte.

d) Formación en aquellas materias que mejoren la preparación de las mujeres.

e) Actividades orientadas a aumentar la autonomía, independencia y el desarrollo integral de las mujeres.

f) Actividades de información, sensibilización y divulgación que pongan de relieve la desigualdad entre mujeres y hombres.

g) Actividades orientadas a fomentar la participación de las mujeres en los órganos de decisión social, política, económica y cultural.

h) Actividades orientadas a evitar el aislamiento de las mujeres del ámbito rural y marítimo y que respondan a sus demandas formativas y de ocio.

i) Proyectos que incluyan acciones novedosas en términos de roles de género, como la formación en habilidades y recursos de liderazgo político, revisión del papel social de la maternidad, claves para la incorporación de mujeres en profesiones típicamente masculinas, cuestionamiento de «la masculinidad y feminidad», etc.

j) Acciones formativas para las propias socias a fin de mejorar la organización, participación y gestión de la asociación.

k) Actividades orientadas a recuperar la aportación histórica de las mujeres.

l) Diseño y realización de proyectos de investigación en materia de igualdad de oportunidades.

m) Proyectos que incluyan la participación de la asociación en foros y encuentros relacionados con su propia actividad tanto dentro de la Comunidad Autónoma de Euskadi como fuera de ella.

n) Programas contra la marginación con situaciones problemáticas graves o de especial dificultad para las mujeres.

ñ) Actividades orientadas a fomentar el ocio y el disfrute del tiempo libre .

o) Diseño, desarrollo y ejecución de actividades relacionadas con el medio ambiente que incluyan la perspectiva de género.

p) Diseño de acciones para la adecuación de usos y de mejora en el transporte y urbanismo que incorporen la perspectiva de género (estudios, materiales informativos, campañas de información…).

**Artículo 4.—*Conceptos subvencionables y beneficios genéricos***

1. *Conceptos y cuantías:* A los efectos de las ayudas contempladas en el Titulo I del presente Decreto serán subvencionables todos aquellos gastos que se originen en relación con los hechos subvencionables contemplados en el artículo 3 y por los siguientes conceptos y en las siguientes cuantías:

1.1. *Gastos originados por la realización de proyectos llevados a cabo en cooperación con otras asociaciones de mujeres, entidades sin ánimo de lucro, agentes socieconómicos y administraciones públicas.*

Se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) La asociación solicitante deberá realizar el proyecto en cooperación con, al menos, otra asociación de mujeres, entidad sin ánimo de lucro, agente social o administración pública. Esta circunstancia deberá acreditarse mediante declaración firmada por la presidencia de la asociación solicitante y la persona que ostente la representación legal de las otras entidades coparticipantes donde se manifieste el compromiso adquirido según anexo IV (documento acreditativo del compromiso adquirido en actividades de cooperación), así como el anexo V debidamente cumplimen-

ria), eta V. eranskina behar bezala betez (lankidetzan egingo den proiektuaren deskribapen zehatza).

b) Eskabidea aurkeztu duen elkarteak hartuko du bere gain emandako diru-laguntza; halaber, bere zereginak izango dira laguntza hori kudeatzea eta horren justifikazio ekonomikoa egitea.

c) Eskabidearen xede diren jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan egingo dira.

Atal honetako etekin orokor gisa, gastu orokorraren % 100erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; hala ere, gehienez 6.000 euro emango dira.

1.2. *Gizonen artean berdintasunaren printzipioa sustatzeko proiektuak edo jarduerak egiteko gastuak.*

Diruz lagunduko dira gizonezkoei zuzendutako jarduerak. Horietan, eta etekin orokor gisa, gastu osoaren % 75erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; hala ere, gehienez 4.500 euro emango dira.

1.3. *Arlo jakin batzuk sustatzeko jarduerak egiteko gastuak. Hona hemen aipatutako arloak:*

a) Erantzunkidetasuna eta norberaren, familiaren eta lanbidearen arduren arteko bateragarritasuna.

b) Emakumeen eskubideak.

c) Osasuna eta bizitza-kalitatea.

d) Ingurumena, hirigintza eta garraioa.

e) Lana eta trebakuntza.

f) Gizarte eta kultura arloa.

Atal honen barruko etekin orokorren zehaztapena hau da: a, b, c, d eta e ataletako aurrekontu osoa aintzat hartuta gastu osoaren %100erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango. Hala ere, gehienez 3.500 euro emango dira.

f) atalari dagokionez, etekinak hauek izango dira: gastuen % 50erainoko diru-laguntza, itzuli beharrik izango ez dena. Gehienez 1.500 euro emango dira.

1.4. *Artikulu honetako 1.1., 1.2. eta 1.3. ataletan sartzen ez diren baina emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko diren jarduerak egiteko gastuak.*

1.4.1. Jarduerak hurrengo baldintza eta modalitateen arabera egin behar izango dira:

a) *1. modalitatea:* ikerketen eta azterketen ondoriozko gastuak.

Atal honetako etekin orokor gisa, gastu orokorraren % 75erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; gehienez 3.000 euro emango dira dena den.

b) *2. modalitatea:* berdintasunaren esparruan trebatzeko jardueren ondoriozko gastuak.

Trebatzeko jarduerak honako baldintza hauek betez egin behar dira:

1) Parte hartzea zabaltu eta bultzatzeko estratregia egokia ezarriko da.

2) Gutxienez 8 pertsona izan behar dira ikastaro bakoitzean.

3) Familiako eta laneko erantzukizunak eta trebakuntza bera bateragarriak izateko beharrezko neurriak bermatuko dira.

4) Trebatzeko ikastaroen ondoriozko gastuak doakoak izango dira alargunen, minusbaliatuen, langabetuen eta landa inguruneko emakumeen kolektiboentzat.

Atal honetako etekin orokor gisa, gastu orokorraren % 75erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; gehienez 2.000 euro emango dira dena den.

tado (descripción detallada del proyecto en cooperación).

b) La asociación peticionaria se hará cargo de la subvención concedida y asumirá la gestión y justificación económica de la misma.

c) Las actividades objeto de la solicitud deberán realizarse en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Los beneficios genéricos contemplados en este apartado se concretan en la concesión de una subvención no reintegrable de hasta el 100% del gasto global con un límite de 6.000 euros.

1.2. *Gastos originados por la realización de proyectos o actividades dirigidas a fomentar entre los hombres el principio de igualdad.*

Serán subvencionables aquellas actividades que tengan como colectivo destinatario a los hombres y los beneficios genéricos en este apartado se concretan en la concesión de una subvención no reintegrable de hasta el 75% del gasto global con un límite de 4.500 euros.

1.3. *Gastos originados por la realización de actividades dirigidas a la potenciación de las siguientes áreas:*

a) Corresponsabilidad y conciliación en la vida personal, familiar y profesional.

b) Derechos de las Mujeres.

c) Salud y calidad de vida.

d) Medio ambiente, urbanismo y transporte.

e) Área de Empleo y Formación.

f) Área Sociocultural.

Los beneficios genéricos en este apartado se concretan en una subvención no reintegrable de hasta el 100% de los gastos globales considerando conjuntamente el presupuesto correspondiente a los apartados a, b, c, d y e con un límite de 3.500 euros.

En el caso del apartado f), los beneficios se concretan en una subvención no reintegrable de hasta el 50% de los gastos con un límite de 1.500 euros.

1.4. *Gastos originados por la realización de actividades en materia de igualdad de mujeres y hombres que no queden comprendidas en los apartados 1.1, 1.2 y 1.3 del presente artículo.*

1.4.1. Las actividades se deberán realizar de acuerdo a las siguientes condiciones y modalidades:

a) *Modalidad 1:* Gastos originados por la realización de actividades de investigación y realización de estudios.

Los beneficios genéricos en este apartado se concretan en una subvención no reintegrable de hasta el 75% del gasto global con un límite de 3.000 euros.

b) *Modalidad 2:* Gastos originados por la realización de actividades de formación en el materia de igualdad.

Las actividades de formación deberán realizarse en las siguientes condiciones:

1) Se establecerá la estrategia adecuada para divulgar y animar la participación.

2) Deberá asegurarse una participación mínima de 8 personas por curso.

3) Se garantizarán medidas para compatibilizar las responsabilidades familiares y profesionales con la actividad formativa.

4) Los gastos derivados de los cursos de formación para aquellas personas pertenecientes a colectivos como viudas, personas con minusvalías, desempleadas y mujeres pertenecientes al mundo rural serán gratuitos.

Los beneficios genéricos en este apartado se concretan en una subvención no reintegrable de hasta el 75% del gasto global con un límite de 2.000 euros.

c) *3. modalitatea:* sentsibilizazio, informazio eta zabalkunde jardueren ondoriozko gastuak.

Sentsibilizazio, informazio eta zabalkunde jardueren ondoriozko gastuetarako diru-laguntza emango da baldin eta hurrengo baldintzak eta modalitateak betetzen badituzte:

*3.1. modalitatea:* kanpainak, mintegiak eta elkarrizketak antolatzea, hurrengo baldintzak betez:

a) Edukiak lehentasunezko gaiei buruzkoak izan behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako IV. Planaren, Aukera berdintasunerako eta genero politiketarako Bizkaiko Foru Planaren eta foru dekretu honetako 3. artikuluan jasotzen diren gaien arabera.

b) Aintzat hartu behar dira alderdi jakin batzuk, esaterako, ordutegiak, prezioak, tokiak, informazio-bideak eta abar. Horiek ez dute emakumeen eta gizonen parte-hartzea zaildu behar, lanbideko eta familiako erantzukizunak dituztenean.

c) Kanpainak, mintegiak eta hitzaldiak doakoak izan behar dira.

Modalitate honetako etekin orokor gisa, gastu osoaren %75erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; gehienez 2.000 euro emango dira dena den.

*3.2. modalitatea:* foro eta hitzaldietan parte hartzea, hurrengo baldintzak betez:

Gehienez jota elkarte bakoitzetik bi emakume matrikulatu eta joango dira foro eta hitzaldietara, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bai horretatik kanpo, eta horietan genero politikei buruzko gaiak eztabaidatu behar dira.

Modalitate honetako etekin orokor gisa, gastu osoaren %75erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; gehienez 1.200 euro emango dira dena den.

Bi modalitateetarako eskabidea aurkezten denean, gehienez ere 2.000 euroko diru-laguntza emango da.

d) *4. modalitatea:* berdintasunari buruzko material didaktikoak edo zabalkundekoak prestatzearen ondoriozko gastuak:

Generoari lotutako material didaktikoak edo zabalkundekoak prestatzearen ondoriozko gastuak diruz lagunduko dira, hurrengo modalitateetan:

— 4.1. modalitatea: material arinak prestatzea, adibidez, liburuxkak, diptikoak,... Horrelakoetan, argitalpenaren gastuak hartuko dira kontuan.

— 4.2. modalitatea: arinak ez diren materialak prestatzea. Horrelakoetan soilik hartuko dira kontuan edukiak prestatu, zuzendu eta diseinatzeko gastuak.

Atal honetan 2. modalitateari dagokionez ezarri diren etekin orokorrak hauek dira: kostu osoaren %50erainoko diru-laguntza emango da eta ez da itzuli beharrik izango; gehienez 1.500 euro emango dira dena den.

Material arinak (foiletoak, diptikoak...) egin behar badira, gehienez argitalpen gastuaren guztizkoaren %50eraino lagunduko da diruz; gehienezko muga 600 eurokoa izango da.

Bi modalitateetarako eskabidea aurkezten denean, atal honetan eman beharreko diru-laguntza osoak ez du inola ere gaindituko 1.500 euroko kopurua.

1.4.2. Baldin eta egin beharreko jarduera horiek eragina badute berariazko interesekotzat jo diren kolektiboetan, gehienez modalitate bakoitzerako ezarri diren portzentaia eta muga horiek baino %10 handiagoa izan daiteke diru-laguntza hori. Berariazko interesa duten kolektiboak ondoko hauek dira:

— Emakume alargunak.

— Landa inguruko emakumeak.

— Gazteak.

— Langabetuak.

c) *Modalidad 3:* Gastos originados por la realización de actividades de sensibilización, información y divulgación.

Se subvencionarán los gastos derivados de actividades de sensibilización, información y divulgación en las siguientes condiciones y modalidades:

*Modalidad 3.1:* Organización de actividades como la realización de campañas, seminarios y charlas, en las siguientes condiciones:

a) Que los contenidos se centren en temas prioritarios según el IV Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Plan Foral para la igualdad de oportunidades y políticas de género de Bizkaia y los temas recogidos en el artículo 3 del presente Decreto Foral.

b) Que se tengan presentes aspectos como horarios, precios, lugares, canales de información, etc. que no dificulten la participación de mujeres y hombres con responsabilidades profesionales y familiares.

c) Que las campañas, seminarios y conferencias sean de acceso gratuito.

Los beneficios genéricos en esta modalidad se concretan en la concesión de una subvención no reintegrable de hasta el 75% del gasto total con un límite máximo de 2.000 euros.

*Modalidad 3.2:* Asistencia a foros y conferencias, en las siguientes condiciones:

Que la matrícula y el desplazamiento sea de dos mujeres por asociación como máximo por la participación en foros y conferencias dentro y fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, donde se debatan temas relacionados con las políticas de género.

Los beneficios genéricos en esta modalidad se concretan en la concesión de una subvención no reintegrable de hasta 75% del gasto total con un límite máximo de 1.200 euros.

En el caso de presentar una solicitud por ambas modalidades la subvención a conceder por este apartado no podrá superar los 2.000 euros.

d) *Modalidad 4:* Gastos originados por la elaboración de materiales didácticos o de difusión en relación con la igualdad:

Se subvencionarán los gastos derivados de la elaboración de materiales didácticos o de difusión en relación con el género en las siguientes modalidades:

— Modalidad 4.1: Elaboración de materiales ligeros como folletos, dípticos… En este caso se tendrá en cuenta el gasto ocasionado por la publicación.

— Modalidad 4.2: Elaboración de materiales que no sean ligeros. En este caso se tendrá en cuenta únicamente los gastos por elaboración, corrección y diseño de los contenidos.

Los beneficios genéricos contemplados en este apartado respecto de la Modalidad 2 se concretan en la concesión de una subvención no reintegrable de hasta el 50% del costo total con un límite máximo de 1.500 euros.

En el caso de elaboración de materiales «ligeros» (folletos, dípticos...), se subvencionará hasta el 50% del total de la publicación con un límite máximo de 600 euros.

En caso de presentar solicitud por ambas modalidades, en ningún caso la subvención total por este apartado podrá superar los 1.500 euros.

1.4.2. En el caso de que las actividades a realizar incidan en determinados colectivos considerados de especial interés, la subvención se verá aumentada hasta en un 10% sobre los porcentajes y límites establecidos para cada actividad. Los colectivos considerados de especial interés son los siguientes:

— Viudas.

— Mujeres del mundo rural.

— Juventud.

— Desempleadas.

1.5. *Elkarte berria eratu eta abian jartzearen ondoriozko gastuak.*

Bizkaian emakumeen elkarte berria eratu eta abian jartzeagatiko gastuentzat diru-laguntza jaso ahal izango da. Laguntzak 2008ko otsailaren 25etik aurrera eta 2009ko ekitaldiaren barruan emango dira, eta gehienez 600 euro emango dira, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badira:

— 2009. urtean zehar egin beharreko jardueren proiektu bat ere aurkeztu behar da.

— Elkarte horretan gutxienez 10 emakume izan behar dira bazkide.

2. *Interes bereziko proiektuak:* Bizkaiko Foru Aldundiak ehuneko hori diru-laguntzaren % 100 arte handitzeko ahalmena gordeko du –gehienez ere 18.000 eurora arte– proiektu batek interes berezia duela iruditzen bazaio, baina espedientean behar bezala justifikatu beharko du. Proiektuak interes berezikoak direla erabakitzeko, irizpide hauek kontuan hartuko dira, eta gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira.

a) Laguntza eskatzeko xede den proiektuaren bideragarritasun eta egokitzapen tekniko eta ekonomikoa eta beste erakunde batzuek egindako ekarpenak (10 puntu).

b) Eskabidea aurkeztu duen erakundeak izan duen ibilbidea, jarraitutasuna, egonkortasuna eta dedikazioa, bai eta talde teknikoaren prestakuntza teorikoa eta lanbide ezaugarriak (10 puntu).

c) Proiektuaren orijinaltasuna edota konplexutasuna (10 puntu).

3. *Diru-laguntzen mugak eta jarduerak burutzeko baldintzak:*

3.1. Eskabidea aurkezten duen elkarte bakoitzak soilik aurkeztu ahal izango du eskabide bat, eta berak bakarrik gainera, foru dekretu honetan ezarritakoaren itzalpean. Hori gorabehera, eta foru dekretu honetako 4.1.1. artikuluan xedatutakoaren itzalpean, beste erakunde batekin batera ere aurkez dezake eskabidea.

Beste erakunde batekin lankidetzan gauzatzeko proiekturako eskabidea aurkezten denean, eskabideak sareko proiektua bakarrik jasoko du.

3.2. Nolanahi ere, aurkezten den proiekturako diru-laguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa da kostu osoa 1.200 eurotik gorakoa izatea.

3.3. Era berean, titulu honen itzalpean, eskabide bakoitzaren diru-laguntza ezin da 12.000 eurotik gorakoa izan; salbuespen gisa, hala ere, interes bereziko proiektuetarako gehienez ere 18.000 euro eman daitezke baina betiere 4.2 artikuluan ezarritako baldintzetan.

3.4. Elkarte batek eskabide bi aurkezten baditu (banakako proiektu bat eta sarean egin beharreko proiektu bat) diru-laguntzaren zenbatekoa, biengatik gehienez 18.000 eurokoa izango da.

3.5. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak gauzatzeko kanpoko enpresak edo profesionalak kontratatu behar badira, hurrengo alderdiak baloratuko dira:

a) Berdintasunaren esparruan trebatuta daudela eta lanesperientzia dutela frogatzea.

b) Ikerketa taldeko %60, gutxienez, emakumeak izan behar dira.

c) Helburu, bitarteko eta adierazle berritzaileak erabiltzea.

d) Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

**5. artikulua.—*Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak***

Ahaldun Nagusiaren Kabineteak proiektuak eta planak hautatuko ditu, eta horiei laguntza emango die. Hurrengoak izango dira diru-laguntzok emateko eta zenbatzeko irizpideak:

1.5. *Gastos originados por la constitución y puesta en marcha de una nueva Asociación.*

Se subvencionarán los gastos derivados de la constitución y puesta en marcha de una nueva Asociación de Mujeres en Bizkaia a partir del 25 de febrero de 2008 y dentro del ejercicio 2009 con un importe máximo de 600 euros en las siguientes condiciones:

— Deberá ir acompañada de un proyecto de actividades para realizar durante el año 2009.

— Deberá estar integrada por un mínimo de 10 mujeres asociadas.

2. *Proyectos de especial interés:* La Diputación Foral de Bizkaia se reserva la facultad de aumentar el porcentaje hasta el 100% de la subvención con un límite de 18.000 euros a favor de aquellos proyectos que, previa justificación en el expediente, se consideren de especial interés, para lo cual se tendrán en cuenta criterios tales como los siguientes, siendo necesario obtener un mínimo de 25 puntos:

a) La viabilidad y adecuación técnica y económica del proyecto para el que se solicita la ayuda y las aportaciones recibidas de otras instituciones (10 puntos).

b) La trayectoria, continuidad, estabilidad y dedicación demostrada por la asociación solicitante, así como la formación teórica y perfil profesional del equipo técnico (10 puntos).

c) Originalidad y/o complejidad del proyecto (10 puntos).

3. *Límites de subvención y condiciones de realización de las actividades:*

3.1. Cada asociación solicitante sólo podrá presentar una única solicitud de forma individual al amparo del presente Decreto Foral, sin perjuicio de que pueda presentar una solicitud conjunta con otra entidad al amparo de lo dispuesto en el articulo 4.1.1.

En el caso de presentar una solicitud de proyecto en cooperación con otra entidad, dicha solicitud contendrá únicamente el proyecto en red.

3.2. En cualquier caso, para que el proyecto presentado sea subvencionable, el coste total del mismo deberá ser superior a 1.200 euros.

3.3. Igualmente, en ningún caso la cantidad total a subvencionar por cada solicitud podrá superar la cantidad de 12.000 euros al amparo del presente Título, excepto para los proyectos de especial interés en las condiciones establecidas en el artículo 4.2., para los cuales el límite se establece en 18.000 euros.

3.4. En el supuesto de presentarse dos solicitudes por parte de la misma asociación (un proyecto individual y un proyecto en red) el importe máximo a subvencionar por ambos proyectos no superara los 18.000 euros.

3.5. En el caso de que para la realización de las actividades subvencionables fuera necesaria la contratación externa de empresas o profesionales, se valorarán los siguientes aspectos:

a) Que demuestren formación y experiencia profesional en materia de igualdad.

b) Que el equipo de investigación esté compuesto como mínimo, de un 60% de mujeres.

c) Que trabajen con objetivos, herramientas e indicadores innovadores.

d) Que tengan su domicilio social y fiscal en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Artículo 5.—*Criterios de selección y valoración***

El Gabinete del Diputado General seleccionará los proyectos y planes que serán apoyados teniendo en cuenta como criterios para la concesión y cuantificación de las subvenciones los siguientes:

*Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Foru Planarekin bat etortzea (20 puntu)*

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, 2000ko maiatzaren 30ean, foru plana onetsi zuen, «Bizkaian emakumeek eta gizonek aukera berdinak izan ditzaten eta genero politikak ezar daitezen». Plan horretan zenbait arlo eta ekintza jaso eta, horien barruan, hainbat helburu ezarri dira. Bada, helburu horiekin bat etorri behar da kasuan kasuko proiektua edo plana. Plan hori 2003ko abenduaren 30ean berretsi zen.

*Emakumeen elkarteen artean eta erkidegoan parte hartzen duten bestelako taldeen artean lankidetza-sareak sortzea, eta administrazioarekin eta beste hainbat eragilerekin koordinatzea (20 puntu)*

